

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroek beraien eskaerak egin ahal izateko lokal fisikora jo beharko dute, izan ere, gai delikatu bat denez ez da guztiz arrunta telefonoz komunikatzea. Webguneari dagokionez bezeroentzako 24 ordu erabilgarri egongo den online chat bat egongo da . Hala ere, gure webgunean bezeroentzat hainbat atal egongo dira bertan informazio guztia eskuragarri izan dezaten. Laburbilduz, gure bezeroekin izango ditugun bi harremanak webgunean eta lokalean izango dira. Bezeroekin harremanetan jartzean, laguntza pertsonala eta informazioa eskainiko diegu prozesu hau errazteko. Gure zerbitzuaren eskaerak lokalean egingo ditugu.